

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 98/2019 otsailaren 19koa, turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2019ko deialdia, ETEentzat eta autonomoentzat onartzen duena

Diputatuen Kontseiluaren 10/2016 Foru Dekretuak (otsailaren 9koa, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena), 8. artikuluan xedatzen du Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzari dagokiola proposatzea kualifikazio profesionala hobetzeko eta enplegua eskuratzen laguntzeko hobekuntza ekintzak sustatzeko jarduerak eta ekimenak, eta horiek nola garatzen diren ikuskatzea, eta orobat dagokiola Lanbide Heziketako ikastetxeak eta Arabako beste entitate batzuk hobetzeko jarduerak eta ekimenak garatzea eta laguntzea, eta berebat autonomoentzako laguntza, eta berdin xehekako merkataritza, turismoaren sustapena eta artisautza jarduera garatzea eta laguntzea.

Turismoaren eskumenak baliatzean, zuzendaritza honek erabaki du arabar turismo sektorea sustatu, bultzatu eta laguntzeko behar den esparru egokia garatzea, dirulaguntzak emateko deialdi bat onartuz.

Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zuzendaritzak, laguntza deialdi hau dela medio, Araban turismo jarduera handitzen lagundu nahi du, baita hemengo industria turistikoa eta gure lurraldea turismo leku bezala indartu eta piztu ere, eskaintzaren nola eskariaren ikuspuntutik, ekonomiaren gaur egungo errealitatera moldatuz, baliabide publikoak optimizatuz eta sistemari segurtasun juridiko handiagoa emanez, hori guztia lurraldeko eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean, eta bat etorri Arabako Foru Aldundiak legealdirako taxutu duen turismo plan estrategikoarekin. Plan horrek helburu handi hauek ditu: turisten sarrera kopurua eta batz besteko egonaldia handitzea eta Arabako Lurralde Historikoko barne turismoa handitzea.

Beste alde batetik, turismoaren garapena eta sustapena helburu daukaten enpresak egiteko garrantzitsua betetzen dute turismo sektorea indartzen, zuzendaritzaren lana osatu eta aberastuten duten neurrian.

Azkenik, ezin daiteke ahaztu gure eskaintzaren bereizgarriak kalitatea, berrikuntza eta produktu eta zerbitzuen berezitasuna eta kautotasuna izan behar direla.

Azaldutako guztiagatik, foru agindu honen bidez, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, turismoa sustatzeko ekimenak lotu beharko zaizkion laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea turismoa sustatzeko eta enpresa hobekuntzak egiteko jardueretarako laguntzen 2019ko deialdi publikoa, zeinaren gehieneko hornidura 30.000,00 euro izango den. Deialdia foru agindu honi erantsi zaio.

Bigarrena. Deialdiaren araubidea Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapen Zuzendaritzak bere eskumenez emandako dirulaguntzen oinarri arautzaileetan (Diputatuen

Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa) eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoan dago jasota.

Hirugarrena. Foru Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuko 1.30.5.02.37.00.479.00.01 aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira, 30.000,00 euroko zenbatekoz horniturik dagoela eta xedapen erreferentzia 105.512/000 duela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikularekin bat etorri aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA, ETE-ENTZAT ETA AUTONOMOENTZAT, 2019ANTURISMOA SUSTATZEKO JARDUERAK GAUZATZEKO

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan turismoa sustatzeko jarduerak babestea, lehiaketa bidez dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontuetako partida honen kontura ordainduko dira: 30.5.02.37.00.479.00.01 (xedapen erreferentzia: 105.512/000), 30.000,00 euroko zenbatekoaz hornitua.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako zuzkidura handitu ahalko da, hasierako aurrekontuaren ehuneko 100eraino, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta geldikinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

a) Enpresa txiki eta ertainak, sozietate xedea dela-eta beren jarduera turismoaren sektorean gauzaten dutela egiaztatzen dutenak, edozein dela ere haien konfigurazio juridikoa, betiere sozietate egoitza eta zerga egoitza Araban badute.

“199/2003 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz (irailaren 2koa, zeinaren bidez sortzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko turismo enpresa eta establezimenduen erregistroa; gero beste xedapen honek aldatu zuen: apirilaren 16ko 203/2013 Dekretua eta urtarrilaren 27ko 6/2015), hauek joko dira turismo sektoreko enpresa eta establezimendutzat ofizioz, inolako frogagiriren beharrik gabe:”

- Turismo ostatua ematen duten enpresak.
- Bidaia agentziak.

b) Turismoa sustatzeko jarduera egiten duten eta zerga egoitza Arabako lurralde historikoan daukaten autonomoak.

3.2. Foru Agindu honen ondorioetarako, ETEtzat hartuko dira eskabidea aurkezten duten egunean baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

- 250 baino soldatapeko gutxiago edukitzea.
- eta gutxienez honako bi betekizun hauetako bat betetzea:
- Urteko negozio bolumena 50 milioi euro baino gutxiago izatea.
- Urteko balantzea 43 milioi euro baino gutxiago izatea.

3.3. Onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpena onartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian.

Enpresak ez badauka esleiturik Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizatzekeo kontu koderik, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egon beharko dute.

3.4. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2019ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izenduenen bat jaso duten eskatzaileak (esleitzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon edo ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz.

4. artikulua. Dirulaguntzarako onartzen diren gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

- Turismoa sustatzeko materialak diseinatzea, egitea, maketatzea eta itzultzea.
- Estatuan edo Internet bidez gauzatzen diren publizitate ekintzak.
- Turismoko produktuak zein natura, gastronomia edota kultura arloko ibilbide tematikoak sortzea, hobetzea, sustatzea eta merkaturatzea, eta horri buruzko kanpo aholkularitzako gastuak, eta turismo ekitaldiak antolatzea. Hala ere, kirol eta/edo kultur izaera duen oro, dela edukian, dela eskatzailearen sozietate helburuagatik, diruz lagunduko bada, lurraldearen turismo sustapenerako izan behar du, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren alde aurreko oniritzia eduki behar du.
- Turismoko web orriak eta, oro har, gailu mugikorretarako aplikazioak diseinatzea, eguneratzea eta itzultzea, eta QR kodeak ezartzea. Ez da dirulaguntzarik emango web orri horien erregistro eta hosting gastuetarako eta gainerako mantentze gastuetarako. Erakunde onuradunak banner bat ipini behar du bere web orrian nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren turismo atariarekin lotuta.

- Eskatzailea gizarte sareetan egon ahal izateko egin beharreko diseinuko eta programazioko gastuak.

- Bisita gidatuen gastuak.

- Turismoko informazioa hobeto kudeatzen laguntzen duten informatikako aplikazioak.

- Kanpo aholkularitzako gastuak, zuzeneko lotura dutenak kasuan kasuko eredu edo sistemen arabera kalitate, irisgarritasun, nahiz iraunkortasun aipamena edo ziurtagiria lortzearekin, azken helburua ziurtagiria edukitzea izan ala ez.

- Erabilerarako ingurumen planak eta/edo kudeaketa inteligenteen eta/edo jasangarrien ereduak.

- Turismo arloko jarduera berrien bideragarritasun azterlanak.

- Turismo arloko enpresa berrien bideragarritasun azterlanak.

- EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritako betebeharra betetzeko onuradunek egin behar dituzten gastu guztiak, deialdi honetako 11.2 artikuluan jasotakoaren arabera.

4.2. Turismoa sustatzeko materiala diseinatu, egin, maketatu eta itzultzeko gastuak, estatu mailan edo interneten bitartez egiten diren publizitate ekintzek sortutakoekin batuta, diruz laguntzeko onartuko dira, baina 3.000,00 euroko dirulaguntza mugari dagokion zenbatekora heldu arte bakarrik. Dirulaguntzaren gehieneko muga hori gutxitu ahal izango du Balioespen Batzordeak, baldin eta desoreka argia badago aurrekontuko baliabideen eta aurkeztutako proiektuen kopuruaren nahiz kalitatearen artean.

4.3. Gastu hauengatik ez da dirulaguntzarik emango:

- Sustapenerako materialaren inprimaketa gastuak.

- Erakundearen sustapena egiteko materiala (bideoak barne), Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritiz ez badute turismo eduki garrantzikorik.

- Lokala atontzeko gastuak, seinale gastuak, ez eta eraikinetako instalazioenak ere.

- Korporazioetako web orriak diseinatzea, eguneratzea eta itzultzea, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritiz ez badute helburu nagusi turismoa sustatzea.

- Horniduraren eta material inbentariagarria jartzearen gastuak.

- Material ez suntsikorraren gastuak eta inbertsio gastuak, materiala nahiz immateriala izan.

- Prestakuntzarekin zerikusia duten gastuak, edozein eratakoak.

- Ibilgailuetan eta establezimenduetan errotuluak jartzeko gastuak.

- Turismo sustapeneko materialaren banaketa fisikorako gastuak.

- Funtzionamenduko gastu arruntak, hala nola alokairuak, argia, telefonoa, aldizkarietarako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.

- Erakunde eskatzailearen barruko langile gastuak.

- Higiezinaren alokairu gastuak.

- Ferietara joateko gastuak.

- Interneten sartzeko kuotak eta elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio bulletinenak eta aldian aldiko gainerako gastuak.

- Merchandising materialak (sustapenerako materialak) erostea eta banatzea.

– Kalitate ziurtagirien gastuak eta ziurtagiria eman duen erakundeak fakturatutako ikuskaritza gastuak. Lehendik eskuratutako kalitate ziurtagiriei eusteko edo berritzatzeko gastuak.

- Sustapen ekitaldien gastuak (lunch, bazkari, jai eta abarrekoak).
- Xede nagusizat kirola eta/edo kultura sustatzea daukaten ekitaldiak.
- Lehiaketak oro har, antolaketa barne.
- Babesle gastuak.
- Telefono terminalak eskuratzea, nahiz eta haien artean aplikazio informatikoak egon.
- Zerga, lan, kontabilitate, lege zein administrazio aholkularitza.

4.4. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ez onartuko dirulaguntzarako, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Eskatzailearen eta hornitzailearen arteko lotura dagoenean, gasturako dirulaguntza emango da baldin eta hiru eskaintza eskatzen badira zerbitzua edo inbertsioa egiteko, eta, eskaintzarik merkeena hautatu ezean, horren arrazoiak justifikatzen badira.

4.6. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.7. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz turismoa sustatzen nahikorik laguntzen ez duten jarduketak badaude, baztertu egin daitezke esleitu beharreko dirulaguntzaren kalkularen ondorioetarako.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetako onuradunek Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren emaitzak.

Dirulaguntza jaso dezakete:

- 2019. urtean hasitako jardueretatik, 2019ko azaroaren 29ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne.
- 2018ko azken hiruhilekoan hasitako jardueretatik, 2019ko azaroaren 29ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne, baldin eta ez badira diruz lagundu aurreko deialdietan.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru agindu honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 40raino iritsiko dira (ikus Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, 7.4 oinarri orokorra). Edonola ere, aurretik esandako ehunekoak aplikatuta ateratako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inoiz 7.500,00 euro baino gehiago izango.

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da gehitzeko ehuneko 60raino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza portzentaia hainbanaketaz, baldin eta deialdian finkatutako mugak gainditzen ez badira.

6.3. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitezkeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.4. Eskaera diruz lagundu ahal izan dadin, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, esleipenaren garaian, 1.500,00 euro izan beharko da, 3.1 artikulua b) idatz zatian zehaztutako onuradunentzat izan ezik. Horrelakoetan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 1.000 euro izan beharko da.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio batzordea honela osatuta egongo da:

Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia plaza, 5 - 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoa bete beharko da.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauen deialdia indarrean sartzean hasiko da eta argitaratzen den egunetik 20 egun natural igarotakoan amaituko da.

8.3. Foru agindu honetan arautzen diren laguntzetarako eskaerak egiteko erabili behar diren ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan -Probintzia plaza 5, 1. solairua, 01001 Gasteiz- eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Behar bezala eta osorik beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko dira, eta betiere agiri hauek erantsita eduki beharko dituzte:

– Turismoa sustatzeko jardueren deskribapena.

– Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzatzen hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

8.4. Eskatzailea turismo arloko enpresa bat bada, eskabidearekin batera, 8.3 puntuan eskatzen direnez gain, enpresaren gaineko informazio honen fotokopia ere aurkeztu beharko da:

– Enpresaren memoria laburra.

– Sozietatearen eraketa eskriturak.

– IFZ.

8.5. Eskatzailea autonomia denean, eskabidearekin batera, 8.3 puntuan eskatzen denaz gain, honako informazio honen fotokopia:

– NAN.

– Ekonomia Jardueren gaineko Zergan gauzatzen duten turismo jarduerari dagokion epigrafean izena eman izanaren alta inprimakia.

9. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

9.1. Aurkeztutako ekintzak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Proiektuaren kalitate teknikoa. Proiektu guztiaren justifikazioaren, haren helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Aurkeztutako proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez, 20 puntu).

| | |
|--|----------|
| Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera guztietan | 20 puntu |
| Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera gehienetan | 10 puntu |
| Proiektua, oro har, ez da koherentea | 0 puntu |

b) Proiektuak oro har zer berrikuntza maila dakarren eta/edo zer osagarri berritzaile dakartzan metodologiari, baliabideei, materialei, ekintzei, hedapenari edo jardueretako zati diren beste batzuei lotuta (20 puntu gehienez).

| | |
|---|----------|
| Proiektua, oro har, berritzailea da eta zenbait osagai berritzaile eta/edo ekitaldi edo jarduera propio sortu berriak ditu | 20 puntu |
| Proiektua, oro har, berritzailea ez bada ere, baditu osagarri berritzaileak metodologiari, baliabideei, ekintzei, hedapenari... lotuta eta/edo ekitaldi edo jarduera propio sortu berria. | 10 puntu |
| Proiektua ez da batere berritzailea (ez jarduerak osotasunean hartuta oro har ez haren elementuetan). | 0 puntu |

c) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 20 puntu).

| | |
|--|----------|
| Eskaera aurkezteko nean eskabidea osorik egon da, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da. | 20 puntu |
| Eskaera aurkezteko nean eskaera osorik egon da, baina enpresa proiektua ez da nahikoa zehaztu eta definitu, edo eskaera aurkezteko nean eskaera ez da osorik egon, baina geroago osatu egin da, eta enpresaren proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da. | 10 puntu |
| Aurkeztutako gainerako eskaerak | 0 puntu |

d) Jarduketek zenbaterainoko ekarpena egiten duten sasoiz kanpoko turismo okupaziorako edota askotariko turismo eskaintza egiteko (gehienez 15 puntu).

Bost puntu emango dira ekaina, uztaila, abuztua edo irailean edo Gabonetan edo Aste Santuan egiten ez den turismo ekitaldi edo jarduerako, gehienez ere, 15 puntu pilatu arte.

e) Proiektuak enpresa interes bereziko ezaugarriak izatea, enplegu sorkuntzaren, heldutasun eta bideragarritasunaren, hazkunde potentzialaren edo enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak zehaztutako estrategiekin bat etortzearen aldetik (gehienez ere 15 puntu).

| | |
|---------|----------|
| Alta | 15 puntu |
| Ertaina | 10 puntu |
| Txikia | 0 puntu |

f) Iraunkortasun maila ekonomia, gizarte eta ingurumen aldetik. (gehienez 10 puntu).

| | |
|---------|----------|
| Alta | 10 puntu |
| Ertaina | 5 puntu |
| Txikia | 0 puntu |

9.2. Edonola ere, lerro honetako dirulaguntzen onuraduntzat eman ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gainera, aurkeztutako jarduketan multzoak gutxienez ere 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Nolanahi ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenenak, ezarritakoaren arabera jardungo da.

10.3. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluekin bat etorri aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

11.1. Laguntza lerro honen kontura finantzatzen diren jarduketetan Arabako Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da leku nabarmenean.

11.2. Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, ekitaldi publiko nahiz pribatuak, aurkezpen, amaiera ekitaldi eta antzekoak alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herri-tarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

11.3. Web orriren bat sortu edota eguneratzeko dirulaguntza jasotzen bada, hura Arabako Foru Aldundiaren turismoko web orriari estekatuko zaio.

12. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharrak onartzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2019ko azaroaren 29a baino lehen (egun hori barne):

- Egindako jarduera guztien azkeneko memoria.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak, jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak.

– Hiru eskaintzak eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrik partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 15.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira).

– Dosierra, CDa edo antzekoa, dirulaguntza gaiaren argazkiak eta/edo bideoak jasota dituen.

Profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.3. Onuradunak fakturak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan 2020ko apirilaren 10a (barne) baino lehen ordaindu izana justifikatu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren justifikatutako zenbatekoa. Zenbateko hori onartutako dirulaguntzaren oinarriaren parekoa edo gehiago izango da, eta formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, ondoko datuak zehazten dituen: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta eta/edo zigilua jarrita, datu hauek zehazten dituen: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen agiriak edo ordainagiriak, bidezko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

12.4. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa ez hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

12.5. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

12.6. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

12.7. Hasieran onartutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketan kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu,

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

12.8. Aurreko lerroaldeetan aipatutako agiriak, dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko aurkeztu behar direnak zein hura kobratzeko aurkeztu behar direnak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz) edo bestela, itundutako udalen erregistro orokorretan. Hori guztia, kalterik egin gabe Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari.

12.9. 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza mugetako edozein aplikatu bada, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak txostena alde aurretik txostena eginik, diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

12.10. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharrezko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12.11. Onuradunek gastuen justifikazioak aurkeztu ondoren, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak, diruz lagundutako jarduketak benetan egin direla egiaztatzeko. Bisiten kopurua eskura dauden baliabideen araberakoa izango da.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

13.1. Diputatuen Kontseiluaren oinarri orokorrak onartzen dituen martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen beste laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

14. artikulua. Garapena

14.1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru agindu hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

15. artikulua. Eskaerak egokitzea

15.1. Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahalko dira ofizioz.

16. artikulua. Azken klausula

“Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua;

dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.